

4. ALDIZKARIA - 2007ko urtarrilaren 8a

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo udal mugapeko eremu publikoan diru eskea arautzen duen udal ordenantza behin betiko onetsirik

Uharte Arakilgo Udalak, 2006ko irailaren 15ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Uharte Arakilgo udal mugapeko eremu publikoan diru eskea arautzen duen udal ordenantza.

Onesteko erabakia 2006ko 123. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urriaren 13an, eta jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betiko onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Uharte-Arakilen, 2006ko abenduaren 11n, _Alkatea, Jesús María Navarro Lacunza.

UHARTE ARAKILGO UDAL MUGAPEKO EREMU PUBLIKOAN DIRU ESKEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Zioen azalpena

Uharte Arakilgo Udalak, legezko elkartearen izenean eremu publikoan diru eske ari ziren pertsonekin izandako gorabeherak ikusita, eta legezko araurik ez dagoenez, komenigarritzat jo du jarduera hori arautzea, bai eremu publikoa okupatzen den kasuetarako bai halako okupaziorik ez dagoenerako.

Ez da ahaztu behar herritarren bihotz ona diru eskearen funtsezko elementua dela, eskuzabaltasunez ematen baitute dirua bidezkoa iruditzen zaien xederako. Administrazioaren ardura da dirua zertarako eskatu den hartarako erabil dadin begiratzea.

Ordenantza arautzaile honetan, beraz, baimena emateko baldintzak, baimena emateko prozedura eta dirua eskatzeko baldintzak ezarri dira.

I. KAPITULUA

Xedea eta aplikazio eremua

1. artikulua. Xedea.

1. _Ordenantza honen xedea da arauak ezartzea Uharte-Arakilgo udal mugape osoko eremu publikoan diru eskean aritzeko, mahaiak edo antzekoak jarrita nahiz jarri gabe.

2. _Diru esketzat joko da kalean dabilen jendeari dirua eskatzea, ongintza, kultura, kirol, gizarte edo laguntza helburuak irudikatzen dituzten eranskailu edo ikurren truke.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza hau aplikatuko da norbait Uharte Arakilgo udal mugapeko bide publikoetan diru eskean aritzen denean, dela eremu publikoa okupatuz, mahai, pulpitu, tripode edo gisako elementuak jarrita, dela kalean zehar eskean ibiliz, eremu publikoa okupatu gabe.

II. KAPITULUA

Baimena lortzeko prozedura

3. artikulua. Eskabidea.

1. _Diru eskean ari nahi dutenek gutxienez hamabost egun natural lehenago aurkeztu behar dute eskabidea Udaletxean.

Eskabidean datu hauek jarri behar dira

a Entitate, talde edo elkarte eskatzailearen izena, eta ordezkariaren identifikazioa, jakinarazpenetarako helbidearekin eta harremanetarako telefonoarekin.

b Dirua zein entitate, erakunde, talde edo elkarterentzat eskatuko den, eskatzailea bera ez bada.

c Diru eskearen bidez lortu nahi diren xedeen azalpen argi eta nahikoa.

d Zein egun eta ordutan egingen den.

e Non barna egingen den diru eskea. Eremu publikoa okupatu behar bada, non eta gutxi gorabehera zenbat okupatuko den.

f Zenbat lagun ariko diren diru eskean, eta haien identifikazioa NANaren kopia konpultsatua edo atzerritarrentzako agiri baliokidearena.

2. _Betiere, eskabidearekin batera, behar diren agiriak aurkeztuko dira artikuluko 1. idatz-zatiko a eta b letretan aipatutako entitateak legez eraturik daudela frogatzeko estatutuak, Administrazioaren erregistro baimenduan inskribatu izanaren ziurtagiria etab..

IFKren fotokopia ere erantsi behar da, eta entitateak egoitza duen probintziako Ogasunaren, egoitza duen herriko Udalaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri bana, administrazio horiekin zorrik ez duela frogatzeko.

Agiri horiek jatorrizkoak izan behar dira, edo lehenbiziko notario-kopiak, edo horien kopia konpultsatua.

3. _Udal zerbitzuek aztertu eta erkatu egingen dituzte aurkeztutako agiriak, egiazkoak eta nahikoak diren ikusteko.

Aurkeztutako agiriak nahikoak edo egokiak ez badira, akatsak konpontzeko edo dokumentazioa osatzeko epea ezarriko da, gehienez ere hamar eguneko, eta, betiere, baimena eman edo ukatzeko ebazpena eman baino behar adina denbora lehenago amaituko dena.

Akatsak konpontzeko epea igaro ondoren, dokumentazioa onartzen ez bada edo nahikoa ez dela irizten bazaio, besterik gabe eskabidea artxibatu egingen da modu arrazoituan eta eskatzaileari jakinaraziko zaio.

. artikulua. Tramitazioa eta ebazpena.

1. _Udal zerbitzuek dokumentazioa egiaztatu ondoren, diru eskerako baimena emanen da.

2. _Alkatetza udalburutzaren dekretu baten bidez emanen da baimena. Dekretuan azalduko da zein egun eta ordutan egingen den diru eskea eta horretarako baimena jaso duten lagunak zenbat eta nor diren. Dekretuan, halaber, diru eskean eremu publikorik okupatuko den zehaztuko da, eta hala denean, okupazioaren kokapena eta neurriak azalduko dira.

3. _Diru eskean eremu publikoa okupatzen bada, ordenantza fiskal egokian ezarritako tasak ordainduko dira.

. _Diru eskeak ez du eragotzi behar ibilgailu eta oinezkoen zirkulazioa, eta uneoro bete behar dira alkatetza-udalburutzak diru eskea baimentzeko dekretuan ezarritako jarraibideak eta Udaltzaingoak dekretu hori betearazteko ematen dituen aginduak.

III. KAPITULUA

Diru eskean aritzea

5. artikulua. Baimenaren baldintzak.

1. _Entitate, talde edo elkarte eskatzaileak eskabidean eta baimenean adierazten den pertsona kopuru bera jarri beharko du diru eskean. Eremu publikoa okupatzen bada, baimena emateko dekretuan ezarritakoa bete beharko da kokapenari eta neurriei dagokienez.

2. _Eskatzaileek beren entitate, talde edo elkartearen identifikazio-txartela eraman beharko dute agerian. Txartelean eskatzailearen izena, deiturak, NAN zenbakia eta argazki berria jarriko dira.

3. _Baimenaren eskabidean ageri ez den pertsonaren bat diru eskean aritzeko bada, Udaltzaingoiari jakinaraziko zaio diru eskea hasi aurretik, eta eskabidean ageri ez den pertsona hori identifikatu egingen da.

. _Diru eskean ari den pertsonaren batek gorabehera edo kalterik eragiten badu, entitate, talde edo elkarte eskatzailea izan behar du erantzule bakarra. Nolanahi ere, Udaltzaingoak agintzen duena beteko da uneoro, jende pilaketak, oinezkoen edo ibilgailuen zirkulazio arazoak edo beste edozein gorabehera saihesteko, batez ere merkataritza edo ostalaritzako establezimenduetako ateen ondoan.

5. _Abal edo fidantza. Baimena emateko dekretuan adieraziko da zenbateko fidantza jarri behar duen

eskatzaileak. Administrazio kontrataziorako onartutako moduetatik edozeinetan jarri ahal izanen da. Fidantza 150 eurokoa izanen da gutxienez. Fidantzaren zenbatekoa modu arrazoituan finkatuko da.

I. KAPITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

6. artikulua. Zehapen prozedura.

1._Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako arau-hausteengatik Udalak zehapenak ezarriko ditu, zehapen espedientea tramitatu ondoren. Alkatetza udalburutzari dagokio zehapen espedientea ebaztea.

2._Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko eta ebazpenen aurka errekursoak egiteko prozedura zehapen prozedura administratiboari buruz indarra duen araudian ezarritakoa izanen da.

3._Arau-hausteen erantzuleak diru eskerako administrazio baimena eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izanen dira, edo, solidarioki, sailkatutako arau-haustea egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

. artikulua. Arau -haustek.

1._Arau-haustek oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

2._Arau-hauste oso larritzat joko dira

a Diru eskean aritzea Udalaren administrazio baimenik izan gabe.

b Herritarren emaitza librerako eskubidea urratzeko moduko diru eskea egitea.

c Pertsona edo ibilgailuen zirkulaziorako eragozpen larrien aurrean agintaritzaren agenteek diru eskeari edo diru skatzaileen kokapenari buruz ematen dituzten aginduak ez betetzea.

d Diru eskean aritzean beste pertsona batzuei eremu publikoa erabiltzeko eragozpen larriak sortzea.

e Diru eskean aritzean zerbitzu publikoren baten ohiko funtzionamendurako eragozpenak edo oztopo larriak sortzea.

f Eskabidean gezurrezko datuak jartzea.

g Arau -hauste larria oso larri bilakatuko da, inputatuari azken 5 urteetan zehapen irmoak jarri bazaizkie 2 arau-hauste larriengatik.

3._Arau-hauste larritzat joko dira

a Diru eskean aritzean administrazio baimenean ezarritako funtsezko baldintzak ez betetzea.

b Diru eskean aritzean toki publikoren bat erabiltzea eskubidea duten pertsonari eragozpen edo oztopoak sortuz toki publiko hori erabiltzeko.

c Diru eskean aritzean zerbitzu publikoren baten ohiko funtzionamendurako eragozpen edo oztopoak sortzea.

d Arau -hauste arina larri bilakatuko da, inputatuari azken 5 urteetan zehapen irmoak jarri bazaizkie 2 arau-hauste arinengatik.

._Ordenantza honen kontrako beste arau -hauste guztiak arintzat joko dira.

. artikulua. Zehapenak.

1._Ordenantza honetan sailkatutako arau-hausteengatik zehapen hauek ezarriko dira

a Arau-hauste administratibo oso larria egiteagatik 3.000 euro bitarte.

b Arau-hauste administratibo larria egiteagatik 1.500 euro bitarte.

c Arau-hauste administratibo arina egiteagatik 50 euro bitarte.

2._a Arau-hauste oso larriengatik, zehapenaz gain, zehatuak ezin izanen du udalerrian diru eskerik egin 2 eta 10 urte bitarteko epean.

b Arau -haustea larria denean, diru eskea egiteko debekualdia 6 hilabete eta 2 urte artekoa izanen da.

c Debekualdia ezartzen denean, lehendik ezarrita eta bukatu gabe dagoen beste edozein debekualdiri gehitu ahal izanen zaio.

3._Zehapena mailakatzeko irizpide hauek erabiliko dira

a Zenbatekoak izan diren lasaitasunaren kontrako nahasmendua edo beste pertsona nahiz jarduera batzuen

eskubideak erabiltzeko trabak.

b Zenbateko eragozpenak sortu zaizkien zerbitzu edo toki publikoren bat erabiltzeko eskubidea duten pertsoneri.

c Zenbateko eragozpenak sortu diren zerbitzu publikoren baten ohiko funtzionamenduan.

d Kalterik egin zaien ekipamendu, azpiegitura eta instalazioei eta zerbitzu edo eremu publikoetako elementuei.

Azken xedapena ordenantza honek indarra hartuko du eta aginduzkoa izanen da haren testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutakoan, legez ezarritako moduan.

Iragarkiaren kodea L061955